



# 2022eko EKAINEKO EFEMERIDEAK



ZERUKO MAPA EKAINA 2022. ZIRKUMPOLARRAK IPAR HEMISFERA  
 DEKLINAZIOA +45°/+90°; IGOERA ZUZENA : 0-24 Ord.

aranzadi **ZERUKO MAPA EKAINA 2022. EKUATORIALA . DEKLINAZIOA -45°/+45°; IGOERA ZUZENA : 0-24 Ord.**  
 IZAR MOTA ESPEKTRALA : O-JIRDINA / B-JIRDIN ARGIA / A-ZURUA / F-HORIA-ARGIA / G-HORIA / K-HORIA-LARANJA / M-GORRIA / N-GORRIA / R-GORRIA / S-GORRIA  
 MAGNITUDEAK: <0 / 1:0 / 2:0 / 3:0 / 4:0 / 5:0 >5:0  
 DCP: Izar aldakorra: Izar bitar: Pulzarante: Galaxia: Kumulu: Nebulosa: Bestak



Zeruko mapari buruzko oharrak.  
 Bibliografia, webgrafia eta gomendatutako liburuak, aldizkariak eta programak.

## BEHAKETA PROPOSAMENAK

- **Begi hutsez:**
- Hilaren 1ean: 00:00etan Perseoko Algol izarren distira minimoa. Magnitudea 3,3 ingurukoa izango da 2,867 egunean behin. Gainerako minimoak hilaren 3an 21:00etan, 6an 17:00etan, 9an 14:00etan, 12an 11:00etan, 15an 08:00etan, 18an 05:00etan, 21ean 01:00etan, 23an 22:00etan, 26an 19:00etan eta 29an 16:00etan izango dira.
- Hilaren 1an: 04:00etan Zeifeidarraren Eta Aquilae izar distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra artekoa izango da 7,177 egunean behin. Gainerako maximoak hilaren 8an 08:00etan, 15an 12:00etan, 22an 16:00etan eta 29an 21:00etan izango dira.
- Hilaren 4an: 18:00etan Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5 eta 4,4 artekoa izango da 5,366 egunean behin. Gainerako maximoak hilaren 10an 03:00etan, 15an 12:00etan, 20an 21:00etan eta 26an 06:00etan izango dira.

- Hilaren bigarren erdian, egunsentia baino lehentxeago, hego-ekialdeko zerumugan, Merkurio, Artizarra, Marte, Jupiter eta Saturno ikusiko dira, bost planetak beren ordena naturalean.
- Hilaren 27an, Lurrak 6,32 urteko periodoko "7P Pons-Winnecke" kometak utzitako hauts lorratza zeharkatuko du; Bootidas izeneko izar-iheskorrak dira, Itzaina (Boyer) konstelazioan erradiatzailea aurkituko delako; ekainaren 22tik uztailearen 2ra bitarteko jarduera-aldia izango dute. Behaketa-baldintzak bikainak izan daitezke, ia Ilargi Berriarekin gertatuko baitira.
- **Prismatikoekin edo teleskopioarekin:**
- Hilaren 11n eta 13an Urano Artizarretik oso gertu ikusi ahal izango da.

## EKAINEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

01	Eguedian hasiko da 2.459.732 zenbakia duen Juliano eguna (Denbora-eskala Jose Scaligerrek sortua, bere aitaren omenez)
01	Hilaren 1ean egunak 15 ordu eta 10 minutuko iraupena izango du eta 30ean 15 ordu eta 21 minutukoa. (14 minutu handituko da solstiziora arte, eta hilaren amaieran 3 minutu murriztuko da).
13	12:00etan Denboren ekuazioa nulua izangoko da.

21	09:13an, Eguzkia iparralderago iritsiko da, ekuatorearekin alderatuta; ekaineko solstizioa izango da. Uda Lurreko hemisferio borealean hasiko da eta negua australean. Gure hemisferioan eguzki-argi ordu gehien jasotzen dugun eguna izango da, baina ez da izango lehenago argituko duena, ezta beranduago ilunduko duena ere. Egunsentirik goiztiarrenak ekainaren 11tik 19ra bitartean izango dira (6: 27an, ordu ofizialean), eta iluntzerik berantiarrenak ekainaren 20tik uztailearen 3ra bitartean (21: 52an, ordu ofizialean).
21	Astrologiaren arabera, 09:13etan Eguzkia Karamarroa (Cancer) konstelazioan sartuko da, hala ere, itxuraz, Zezena (Taurus) konstelazioan egongo da, izan ere, "Zodiakoaren zeinuk" dituzten mugak eta izen bera daramaten zodiakoko konstelaziokoak ez datoz bat.
21	20:23etan, Eguzkia, itxuraz, Bikiak (Gemini) konstelazioan sartuko da eta "1 Geminorun" izarra (Flamsteden sailkapenaren arabera) gainjarriz egingo du.
21	21: 00an, Eguzkiak urteko deklinazio boreal handiena izango du: 23°26'16".

# ILARGIA EKAINEAN

Orbital-abiadura Lurraren inguruan  
1 km/s= 3600 km/h

02	01:13ean apogeotik (aG) igaroko da, Lurrarekiko Distantzia handienetik (406.192 km) pasako da, aurreko perigeoan baino 45.894km gehiagora. I.Z. 06h42m eta D. 26°6', Bikiak (Gemini) konstelazioan.
03	06:00ean konjuntzio geozentrikoa Bikiak (Gemini) konstelazioaren Polux izarrarekin , 2,1°ra.
06	03:00ean konjuntzio geozentrikoa Lehoia (Leo) konstelazioaren Regulus izarrarekin ,51°ra.
07	14:48ean Ilgora (♁). I.Z. 11h 21m eta D. 9°1', Lehoia (Leo) konstelazioan.
10	07:00ean konjuntzio geozentrikoa Birjina (Virgo) konstelazioaren Spica izarrarekin , 5,0°ra.
12	10:01ean beheranzko nodotik igaroko da. ♃. I.Z. 15h 19m eta D. -18°45', Birjina (Virgo) konstelazioan.
13	14:00ean konjuntzio geozentrikoa Eskorpioi konstelazioaren Antares izarrarekin , 3,0°ra.
14	11:52ean Ilbetea (♃). I.Z. 17h 30m eta D. -26°16', Ofiuko konstelazioan.
	23:23ean perigeotik (pG) igaroko da, Lurrarekiko Distantzia txikienetik (357.432 km) pasako da, aurreko apogeoan baino 48.760 km gutxiagora. I.Z. 18h 04m eta D. -27°38', Sagitario konstelazioan.
18	14:47ean konjuntzio geozentrikoa Saturnorekin, 4°ra
21	03:11ean Ilbehera (♋). I.Z. 00h 08m eta D. -4°33', Arrainak (Piscis) konstelazioan
	15:37ean konjuntzio geozentrikoa Jupiterrekin, 2,5°ra
22	18:59ean konjuntzio geozentrikoa Marterekin, 0,9°ra
25	07:09ean goranzko nodotik igaroko da. ♈. I.Z. 03h 20m eta D. 17°50', Aharia (Aries) konstelazioan.
	23:36ean konjuntzio geozentrikoa Pleiadeak izarrekin, 3,4°ra.
26	07:03ean konjuntzio geozentrikoa Artizarrarekin, 2,6°ra.
27	07:22ean konjuntzio geozentrikoa Merkurioarekin, 3,9°ra.
29	02:52ean Ilberria (♊) I.Z. 06h 35m eta D. 26°8', Bikiak (Gemini) konstelazioan.
	06:08ean apogeotik (aG) igaroko da, Lurrarekiko Distantzia handienetik (406.580 km) pasako da, aurreko perigeoan baino 49.148km gehiagora. I.Z. 06h43m eta D. 26°20', Bikiak (Gemini) konstelazioan.

# PLANETAK EKAINEAN

Lurraren batez besteko abiadura orbitala: 107.280 Km/h)

## Merkurio

Batez besteko abiadura orbitala 172.440 Km/h.  
Hilaren 16aren ondoren gauaren amaieran ikusgai. . Maiatzaren 21ean konjuntzioan aurkituko da, hori dela eta, ekainaren 16arte ezin izango dugu ikusi; egun horretan bere elongazio maximoa (Eguzkitik mendebaldeko 23,2°an egongo da) lortuko du ikusgai bihurtuz. Ekialdetik Eguzkia baino ordubete lehenago irtengo da. Hilaren hasieran Zezena (Taurus) konstelazioan aurkituko da, 03h38m-ko igoera zuzena eta 15°48'-ko deklinazioa izango ditu; Itxuraz mendebalderantz mugituko da hilaren 3ra arte, bere atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloa bukatuz (I.Z.: 03h38m eta D.: 15°31'), itxuraz ekialderantz itzuliz. Bere magnitudea 2,8tik -0,7ra igoko da hilabetean zehar.

## Artizarra

Batez besteko abiadura orbitala 126.000 Km/h.  
Gauaren amaieran ikusgai. Hilaren 1ean ekialdeko zeruertzetik irtengo da, Eguzkia irten baino ordu eta erdi lehenago, eta ia bi ordu lehenago hilaren 30ean; itxuraz ekialderantz mugitzen jarraituko du. Hilaren 1ean Aharian (Aries) aurkituko da (Igoera zuzena: 02h08m eta deklinazioa: 10°51'); 17an Zezena (Taurus) konstelaziora igaroko da (I.Z.: 03h24m eta D.: 16°48'), hor mantenduko da hilabetea bukatu arte (I.Z.: 04h31m eta D.: 20°29'). Hilabetea -3,9ko magnitudearekin hasiko da, eta hilabetean zehar pixka bat jaitsi-ko da -3,8ra. Hilaren 23an Pleiadeen ondoan ikusi ahal izango da.

## Marte

Batez besteko abiadura orbitala 86.760 Km/h.  
Gauaren amaieran ikusgai. Hilaren 1ean Eguzkia irten baino ordu eta erdi lehenago irtengo da, ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik, eta ia lau ordu lehenago hilaren 30ean. Behaketa-baldintzak ez dira oraindik kalitatezko irudiak lortzeko bezain onak izango. Hilabete hasieran Arrainak (Piscis) konstelazioan egongo da (I.Z.: 00h21m eta D.: 0°21'); 3an Balea (Cetus) konstelazioan sartuko da (I.Z.: 00h27m eta D.: 0°57'); 9an Arrainak (Piscis) konstelaziora igaroko da (I.Z.: 00h43m eta D.: 2°42'); hor bukatuko da (I.Z.: 01h42m eta D.: 8°36'). Magnitudea 0,7tik 0,5era igoko da.

## Jupiter

Batez besteko abiadura orbitala 47.160 Km/h.  
Gauaren bigarren erdian ikusgai. Hilaren 1ean Eguzkia irten baino hiru ordu lehenago irtengo da, ekialdeko zeruertzetik, eta lau ordu eta erdi lehenago hilaren 30ean. Arrainak (Piscis) konstelazioan hilabetea hasiko da (I.Z.: 00h14m eta D.: 0°18'); 25an Balea (Cetus) konstelaziora igaroko da (I.Z.: 00h26m eta D.: 1°28'); 28an koadraturan aurkituko da, Eguzkiaren

mendebaldean, eta hilabetea konstelazio berean amaituko da (I.Z.: 00h28m eta D.: 1°39'); Magnitudea -2,1etik -2,3ra handituko da.

Ekaineko lehen egunetan Marteren ondoan ikusi ahal izango da.

## Saturno

Batez besteko abiadura orbitala 34.560 m/h.  
Gauaren bigarren erdia baino ikusgai. Hilaren 1ean, ekialdeko zeruertzetik, Eguzkia sartu baino lau ordu eta erdi beranduago irtengo da, eta bi ordu eta erdi hilaren 30ean. Behatzeko aukerak hobetzen jarraitzen dute. Hilabetea Kaprikornioan hasiko da (I.Z.: 21h50m eta D.: -14°16'); 4an bere atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin hasiko du, mendebalderantz igaroz (I.Z.: 21h50m eta D.: -14°16'); Konstelazio berean amaituko da (I.Z.: 21h48m eta D.: -14°31'). Magnitudea 0,8etik 0,6ra handituko da.

- Hilaren 06an, 22:52ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren ekialdean.
- Hilaren 15an, 01:12ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren mendebaldean.
- Hilaren 22an, 21:30ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren ekialdean.
- Hilaren 30an, 23:24ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren mendebaldean.

## Urano

Batez besteko abiadura orbitala 24.480 Km/h.  
Gauaren amaieran ikusgai. Ekialdeko zeruertzetik irtengo da Eguzkia irten baino ordubete pasatxo lehenago; beraz, behatzea zaila izango da. Hilabete osoan Aharian (Aries); hilabete hasieran 02h55m-ko igoera zuzena eta 16°17'-ko deklinazioa izango ditu, eta 03h00m-ko igoera zuzenarekin eta 16°41'-ko deklinazioarekin bukatuko du. Magnitudea 5,9etik 5,8ra handituko da.

## Neptuno

Batez besteko abiadura orbitala 19.440 Km/h.  
Gauaren bigarren erdian ikusgai. Ekialdeko zerumugatik irtengo da Eguzkia baino lau bat ordu lehenago. Hilaren 1ean Arrainak (Piscis) konstelazioan aurkituko da (I.Z.: 23h43m eta D.: -3°5'), itxuraz ekialderantz mugituz, 28. egunera arte, bere atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin hasiko den arte. Hilabetea konstelazio berean amaituko da, eta bere koordinatuetan desberdintasun haundirik gabe. Bere magnitudea 7,9an mantenduko da.